

"UPV/EHUⁿ ikertzaileak prestakuntzarako kontratatzeko deialdia (2017)"

OHIKO GALDERAK

2017/06/14an eguneratua

GARRANTZITSUA: Kontuan hartuta eskarien kopurua handia dela, egizue kontsulta, mesedez, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako (aurrerantzean IAE) pertsonalarekin harremanetan jarri aurretik, 2017ko ekainaren 16ra arte eguneratuko den ohiko galderen zerrenda honetan.

Kontsultari erantzunik aurkitu ezean dokumentu honetan, eskatzaileek pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora jo ahal izango dute, "PIF deialdia" adieraziz mezuaren gaian.

Kontsulta guztiei erantzuteko, helbide elektronikoko honetara bakarrik igorri, mesedez.

ESKATZAILEAREN BALDINTZAK

Titulazioaren eskakizunak:

- **Zer titulaziorik ari da 3.1.a oinarria?**
Doktorego programa batera sartzeko bide ematen duen unibertsitate titulua ari da: masterra edo lizentziatura, baldin eta horrek sarbide zuzena ematen badu masterreko ikasketarik egin beharrik gabe.
- **Nola egiazta dezaket masterra eskaera egiteko epearen barnean amaitu dudala?**
Ez da behar. Eskatzaileak doktorego programa batean matrikulatuta dagoela egiaztatzea behar du baldin eta laguntzaren onuradun bihurtzen bada eta kontratua sinatu aurretik, kontratazioarako hautatua izanez gero.
- **Ezin izango dut masterra irailera edo urrira arte amaitu, aurkez dezaket eskaera orain?**
Bai.
- **GARRANTZITSUA:** Aurkeztu behar da masterreko ziurtagiri akademikoa?
Bai, aurkeztu behar dira gradu, lizentziatura, arkitektura edo ingeniarietako eta masterreko ziurtagiriak. Nolanahi ere, ikasketak UPV/EHUⁿ egin dituzten ikasleek ez dute dokumentu hauek agertu beharrik.
- **BERRIA:** Zein da 3.1.d oinarriak erreferentzia duen titulua?
Masterrik egin gabe doktoregora sarbide zuzena ematen duten graduak: Medikuntza, Farmazia, Odontologia eta Arkitektura.

- **BERRIA:** Eskaera aurkez dezaket masterreko ikasketak egin gabe?
Ez. Edo bai, baldin eta zure graduiko ikasketek doktoregora zuzen sartzeko aukera ematen badute. Esanak esan, parte har dezakete masterra 2017an amaitzea aurreikusten dutenek irailean doktorego programa batean matrikulatu ahal izateko.

Batez besteko notari buruzko baldintza:

- **Zein da 3.2 oinarriak adierazitako baldintza betetzeko kontuan hartu beharreko batez besteko nota?**
Kontuan hartuko da graduiko edo lizentziatuko espediente akademikoan agertzen den batez besteko nota. Horrelakorik ezean, ofizios kalkulatu da deialdiaren 3.2 oinarrian adierazi bezala.
- **BERRIA:** Kontuan hartuko da masterreko batez besteko nota?
Ez, ez da kontuan hartuko baldintza hau betetzeko.
- **Baztertzaila da 3.2 oinarriak aipatzen duen gutxieneko batez besteko notaren baldintza?**
Bai. Deialdiak eskatutako baldintza guztiak bete behar dituzte eskatzaile guztiek haien eskaerak ebaluaziorako onar daitezen.

Doktorego programa:

- **Nola jakin dezaket doktorego programa batean matrikulatzeko baldintzak betetzen ditudan ala ez?**
Zure egoera kontsultatu ahal duzu Master eta Doktorego Eskolan (MDe).
- **Oraindik ez dut doktorego programetarako matrikularik egin. Deialdi honetan parte har nezake eta matrikula irailean egin?**
Bai.
- **Deialdi honetarako eskaera aurkez dezaket baldin eta doktorego programa batean matrikulatuta banago?**
Onartu egingo dira doktorego programa bat egiten ari diren pertsonen eskariak. Laguntza eman ez gero, kontsumitutako prestakuntza denbora kontratuaren gehieneko iraupenetik (4 urte) kenduko da.
- **Egiaztatu behar dut doktorego programan matrikulatuta nagoela eskaera aurkezteko unean?**
Ez. Dokumentazio hori kontratuak izateko hautatutako pertsonen bakarrik eskatutako diegu eta kontratua sinatu aurretik bete beharreko baldintza moduan.
- **Nola matrikula naiteke doktorego programa batean?**
Jarraibideak ikusi eta kontsultatu ahal dituzu Master eta Doktorego Eskolaren (MDe) webgunean:
<http://www.ehu.eus/eu/web/mde/doktorego-programan-izena-ematea>
- **Laguntza hau eska dezaket neure bigarren doktoregoa egiteko?**
Ez.

Merezimenduak:

- **Ezinbesteko baldintza da euskara jakitea deialdi honetan parte hartzeko?**
II. modalitatean (C1 maila) parte hartzeko bakarrik. I. modalitatean merezimendu gisa balioetsiko da eta era honetara puntuatuko da:
 - C1 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 5 puntu.
 - B2 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk. Era berean, ez dira aintzat hartuko 2017ko ekainaren 16tik aurrera lortutako ziurtagiriak.

- **BERRIA:** Non kontsultatu ditzaket onartutako euskara tituluen arteko baliokidetzak?
Esteka honetan:
http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen_baliokidetzak/eu_titbalio/index.shtml

- **BERRIA:** Nola egiazta ditzaket III. modalitatean hizkuntzen jakiteari buruzko merezimenduak?
Espainiar nazionalitateko eskatzaileek frantses ezagutza egiazta dezakete. Merezimendu gisa balioetsiko da eta era honetara puntuatuko da:
 - C1 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 5 puntu.
 - B2 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Frantziar nazionalitateko eskatzaileek gaztelaniazko eta euskarazko ezagutza egiazta dezakete. Merezimendu gisa balioetsiko da eta era honetara puntuatuko da:

- C1 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 maila edo gorakoaren ziurtagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Ez da kontuan izango adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk. Era berean, ez dira aintzat hartuko 2017ko ekainaren 16tik aurrera lortutako ziurtagiriak.

Atxikipen zentroa:

- **Tesirako laguntza hau eska liteke UPV/EHUtik kanpoko zentro batean egiteko, hala nola, enpresa batean edo unibertsitatetik kanpoko ikergune batean?**
Ez. Deialdiaren 5.3 oinarrian adierazten den bezala: *"Kontrataturakoa UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik."*

TESI ZUZENDARIAREN BALDINTZAK

Zuzendu lezake nire tesia UPV/EHUrekin loturarik ez duen pertsona batek?

Bai, baina kasu horretan nahitaezkoa da bi zuzendari izatea. Horietako batek UPV/EHUKoa behar du izan eta bietako batek eskarian adierazitako doktorego programako irakasleen artean egon behar du.

Nola jakin dezaket aukeratu dudan tesi zuzendariak UPV/EHUko doktorego programa batean ari dela?

Esteka honetan ikusi ahal duzu:

<http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak/doktorego-eskaintza-ikasle-berriak>

GARRANTZITSUA: Nola egiten da proposatutako zuzendariak tesiaren zuzendarikidetzaren eskatzeko tramitea, doktorego programako irakasle direnean?

Tramite hau egiteko jarraibideak esteka honetan kontsulta daitezke:

<http://www.ehu.eus/eu/web/ordenacion.academica/programatik-kanpoko-irakasleen-tesi-zuzendarikidetzaren>

Hala ere, tramite hau laguntza emanez gero egin behar da, ez bestela.

Zuzendari ezberdinak hauta ditzaket deialdi honetako modalitateetako bakoitzean parte hartzeko?

Ez.

GARRANTZITSUA: Zuzendari berak abala eman diezaioke deialdi honetan eskari bati baino gehiagori?

Ez.

BERRIA: Zuzendaria eskari batean zuzendari gisa eta beste batean zuzendarikide gisa agertzen bada, abala eman diezaioke eskaera bati baino gehiagori?

Ez. Deialdiak ez du bereizketarik egiten zuzendarien eta zuzendarikideen artean. Biek dute erantzukizun bera eta, beraz, eskari bakarrean ager daitezke.

Bateraezina al da tesi zuzendari batentzat deialdi honetan eskaera bat aurkeztea aurreko urteetan doktorego aurreko deialdietan emandako laguntzekin?

Ez. 2017ko deialdian aurkeztutako eskaerak bakarrik joko dira bateraezintzat.

6.2.j oinarrian eskatzen da zuzendariaren doktore tituluaren kopia aurkezteko, doktorego tesia 2000. eta 2012. urteen artean defendatu duela egiaztatuz. Esan nahi du horrek zuzendariak doktorego tesia urte horietan defendatu behar izan duela eta ez lehenago ez beranduago?

Ez dago inolako murrizpenik proposatutako zuzendarien tesien defentsako urteei dagokienez. Urteen tarte horretan tesia defendatu duten pertsonen parte hartzea sustatzeko neurri gisa, eskariari bost puntu gehiago gehituko zaizkio. Bost puntu horiek bi zuzendari kideetako bakar batengatik batuko dira. Beraz, eskatzaileek irizpide hori betetzen duen zuzendari bat eta betetzen ez duen beste bat gehitu ahal izango dituzte edo aukeratu ahal dute irizpide hori betetzen ez duen pertsona bat edo bi.

KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Zer-nolako ezaugarriak dituzte eskaintzen diren kontratuak?

Kontratu hauek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluari jarraitzen zaizkio eta beren helburua doktorego tesiak egitea da. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, eta beste 3 urtez luzatu ahal izango da. Ordainsari gordina urtean 14.545 eurokoa izango da lehen eta bigarren urteetan, eta 18.182 eurokoa hirugarren eta laugarren urteetan. Kasu guztietan, ordainketa 14 hilekotan egingo da.

Noiz hasiko litzateke nire kontratua?

Kontratuak 2018ko urtarriletik aurrera formalizatuko lirateke.

Kontratu hau bateragarria al da beste batzuekin?

Ez. Arduraldi osoko kontratu bat da eta ezin da UPV/EHUko edo kanpoko beste kontraturen batekin bateratu.

Eskaera aurkez dezaket orain baldin eta lehenago urtarrilaren 27ko 6/2006 Errege Dekretuak araututako Prestakuntza Bidean dauden Ikertzaileen Estatutuak ezartzen duen doktorego aurreko beka bat eskuratu banuen?

Ez.

ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaria aurkez dezaket Ikertu Online aplikazioaren bidez?

Ez, aplikazioa ezin da erabili deialdi honetarako.

UPV/EHUraino joan behar al dut eskaria aurkeztera?

Ez. Eskatzaileak posta zerbitzuko edozein bulegotan aurkeztu ahal du eskaria. Horretarako, dokumentazioa gutun azal ireki batean eraman beharko du eta posta bulegoko langileek eskaeraren lehenengo orria zigilatzen dutela bermatu beharko du, dokumentazioaren aurkezpen data adieraziz. Ondoren, dokumentazioa posta ziurtatuaren bidez bidaliko da helbide honetara:

*Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektoregoaren eraikina
Sarriena auzoa, z.g.
48940 Leioa (Bizkaia)*

Familiartekoren batek aurkez dezake eskaera nire ordezt?

Bai.

Non daude UPV/EHUko erregistro bulegoak eta zein da bertako ordutegia?

Esteka honetan kontsulta daiteke erregistro bulegoei buruzko informazio guztia honako:

<https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Zer ordutara arte egongo dira irekita erregistro bulegoak ekainaren 16an, alegia, aurkezteko epearen azken egunean?

Erregistro bulegoak 13:00etan itxiko dira egun horretan.

Zein izango da IAEk eskatzaileen harrerarako ekainaren 16an izango duen ordutegia, hau da, eskariak aurkezteko epearen azken egunean?

15:00etan amaituko da eskatzaileentzako harrera ordutegia.

DOKUMENTAZIOA

Eskari orria:

- **Ba al da eskaera egiteko formularioa zuzentzerik?**
Ez. Eskaera egiteko formularioa eskaeraren zatitzat eta gutxieneko edukitza hartuko da eta ezin izango da zuzendu, hau da, dokumentua behar bezala osatua ez badago, eskaera hori baztertuko da.
- **BERRIA:** **Posible litzateke formularioa sinadura originalik gabe aurkezta eta sinadurak akatsak zuzentzeko epean aurkeztea?**
Ez. Ezin izango da formularioaren aspekturik zuzendu.
- **BERRIA:** **Beharrezkoa al da sinadura originalak PDF formatuan ere aurkeztea?**
Ez. Sinadura originalak paper euskarrian baino ez dira aurkeztu behar.
- **Nire eskaria bazterrean geratuko al da, zuzentzeko aukerarik gabe, baldin eta dokumentu guztiak epearen barruan eman ez baditut?**
Ez, baldin eta gutxienez eskaera egiteko formularioa, guztiz osatua, epearen barruan erregistratzen bada.
- **GARRANTZITSUA:** **Zer hizkuntzatan aurkeztu behar dut neure eskaria baldin eta I. eta II. modalitateetan batera parte hartzeko aukera egiten badut?**
Bi modalitateetan batera parte hartzea erabakiz gero, eskaera inprimaki bakarra aurkeztu beharko duzu euskaraz idatzita, II. modalitatean aurkeztutako proiektuaren hizkuntza kalitatea balioetsiko baita.
- **BERRIA:** **Deialdian adierazten da euskaraz aurkeztutako eskaerak Euskararen arloko Errektoreordetzak itzuliko dituela ingelesera edo gaztelaniara. Neure itzulpena aurkez nezake?**
Bai.
- **Aurkez ditzaket tesi zuzendarien eta besteren sinadurak eskaneatuta?**
Sinadura digitalak onartuko dira baldin eta sistema hauetako baten bidez aurkezten badira: NAN-e, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa, eta abar. Ez da inola ere eskaneatutako sinadurarik onartuko, paperean aurkezteko eskatzen diren dokumentuetan.
- **Zer formatutan entregatu behar dira dokumentuak?**
Eskaera egiteko formularioa bakarrik aurkeztu beharko da paper euskarrian, eskuz sinaturik edo ziurtagiri digitalen bidez. Gainerako agiriak, formularioaren kopia bat PDFn barne, aurkeztu beharko dira CDn, DVDn edo pendrive batean, eskariarekin batera aurkeztu beharko dena.
- **Zer kasutan aurkeztu behar da ANECAren batez besteko notaren ziurtagiria?**
Eskatzaileak ikasketak atzerrian egin dituen kasuan bakarrik eskatuko da. Ziurtagiria honako esteka honen bitartez eska daiteke:
<http://www.mecd.gob.es/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/203615/ficha.html>

Curriculum Vitae:

- **BERRIA:** Zer formatutan aurkeztu behar da CVa?
MINECOko CVN formatuan. Honetarako ondoko estekako editorea erabil dezakezu:
<https://cvn.fecyt.es/editor/index.html?locale=eus#INDEX>
- **BERRIA:** CVaren eduki osoa itzuli behar al dut ingelesera?
Ez. Jatorrizko hizkuntzan utz ditzakezu erakundeen izenak, argitalpenen tituluak, proiektuen tituluak, batzarrak, etab.
- **Aurkeztu behar da tesi zuzendariaren CVa?**
Ez. 6. oinarrian adierazitako dokumentazioa bakarrik aurkeztu behar da.
- **CVan alegatutako merezimendu guztiak egiaztatzeko dokumentazioa agertu behar dut?**
Ez da beharrezkoa fase honetan hori egitea. Areago, aurkeztutako eskarien bolumena kontuan hartuta, eskatu egiten zaie eskatzaileei 6. oinarrian adierazitako dokumentazioaz besteko agiri osagarririk ez aurkezteko, ez baita balioetsiko.

Merezimenduak:

- **Aurkez dezaket eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren lortutako euskara maila egiaztatzen duen ziurtagiri bat?**
Ez, alegatutako merezimenduek 2017ko ekainaren 16a baino lehen eskuratutakoak behar dute izan.
- **Euskararen jakite mailaren ziurtagiria agertu behar al da euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan?**
Bai, kasu honetan, eskatzaileak dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- **Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak behar dute izan ala konpultsatuak?**
Ez, PDF formatuan eskaneatutako kopiak eman ahal dituzu.
- **BERRIA:** Zer formatutan aurkeztu behar ditut II. modalitateko euskarari buruzko ekarpenak?
PDF formatuan CD, DVD edo pendrive barruan.

Ikerketarako Etika Batzordearen txostena:

- **Ikerketarako Etika Batzordearen aldeko txostena aurkeztu behar dut eskaerarekin batera?**
Ez, baina ezinbestekoa da eskaeran zeure tesi proiektuari dagokion aukera marka dezazula. Kontratazioa lortuz gero, kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharko duzu txostena.
- **Non eska dezaket Ikerketarako Etika Batzordearen txostena, behin aurkeztu behar dudala ziurtatzen didatenean?**
Tramite hau online egin ahal da webgune honen bidez:
<http://www.ehu.eus/eu/web/ceid/home>

DEIALDIAREN TRAMITAZIOA

Noizko aurreikusten da deialdia ebaztea?

Deialdia 2018ko urtarriletik aurrera ebatziko da.

Nola jakinaraziko zaie eskatzaileei ebaluaziora onartu eta baztertutako eskarien behin behineko zerrenda argitaratu dela?

IAEk jakinaren gainean jarriko ditu eskatzaileak eskaria egiteko inprimakian harremanetarako adierazi den posta elektronikoen bidez. Hala ere, zerrenda webgunean argitaratuta, legeak agindutako jakinarazpen ondorio guztiak izango ditu eta IAEk ez du bere gain hartuko adierazitako helbide elektronikoetan ez jaso izana eta eskatzailearen obligazioa izango da aldian-aldian deialdiaren inguruko informazio berria jaso ote duen egiaztatzea.

<http://www.ehu.eus/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/deialdiak-doktoratu-aurreko-laguntzak>